

HIZKUNTZEN PORTFOLIO EUROPARRA: beste tresna bat ikasle eta irakasleen esku

Amaia Arauzo Uriarte 2008ko uztaila

AURKIBIDEA

SARRERA	3
Paradigma aldaketa	4
Ebaluazio formatiboa	7
Teknikak	7
Aitzindariak.....	7
Planifikazioa	9
Europako Erreferentzia Markoa.....	10
Hizkuntzen Portfolio Europarra (HPE).....	10
HPEren Esperimentazioa.....	18
HELBURUAK: HPE tresna baliagarria dela frogatu.....	18
Lagina.....	18
Egutegia.....	19
Metodologia.....	19
Eztabaida taldea // Elkarrizketa erdi-egituratua.....	19
Elkarrizketa irekia	20
Datu bilketa	20
HIPOTESIAK	21
1go hipotesia.....	21
2. hipotesia.....	27
3. hipotesia.....	28
4. hipotesia.....	32
5. hipotesia.....	34
Irakaslea.....	37
Esperimentazioa	38
Alderdi komunikatiboari erreparatzen dion hizkuntzen ikaskuntzarako eta ebaluazio formatiborako	38
Ikas-prozesua bideratzeko eta ikasle-irakasle rolak aldatzeko	39
Ikasleen autonomia garatu eta ikas-prozesuaren ardura beren gain hartzeko	39
Hizkuntzen ikaskuntza euskaltegitik harago doan ikas-prozesua dela azalarazteko; kultur aniztasuna eta eleaniztasuna bultzatzen duena.....	40
Hizkuntza-gaitasunean ikasleen emaitzetan	40
Ondorioak.....	41
Gogoetak	42
Bibliografia	43
1go ERASKINA	44
2. ERANSKINA.....	46
3. ERANSKINA.....	47
4. ERANSKINA.....	50
5. ERANSKINA.....	52

SARRERA

Helduen hizkuntzen i(ra)kaskuntzan ari garenok sarri askotan egiten ditugu banakako hausnarketak edo taldekakoak, jarraitzen dugun bidea (metodologia, erritmoa, baliabideak...) egokia ote den edo neurri batean hobe daitekeen. Azken batean, ikasleen eta irakasleen espektatibak betetzen ote diren, inbertitutako denbora eta diruari behar bezalako atarramentua ateratzen ote diogun eta oro har, ikas-prozesuaren hasieran ezarritako helburuak (esplizituak edo norberak dituenak) zein neurritan bete diren, edo are gehiago, helbururik jarri ote den.

Lantxo honetan sakonduko ditudan gaiak, dagoeneko gutako askok perzibitzen ditugu eta azaleratzen ditugu, esaterako, ikasleek ote dakiten irakasten dugunarekin zer lotu nahi dugun eta ikaslea kontziente ote den bere ikasketa prozesuaz –zein den bere hasierako egoera eta nora heldu nahi duen ikasketa-modulu bakoitzarekin–. Hau da, guztiok sumatu ditugun hutsuneei behingoz erantzun *sistematiko*, *esplizitu* eta *adostua* emateko. Sistematikot diot, sistema batek arautua izango delako (pausoak aurretik definituta, ebaluazio sistema argia...). Esplizitua diot, ikasleari era garden batez azaltzen zaiolako bai prozesu osoa, eta bai prozesuko pauso bakoitzean zer rol bete behar duen eta nola jokatuko dugun irakasleek eta ikasleek. Eta azkenik, adostua diot, prozesu osoa metodologia partehartzailearen bidez gauzatzen delako, hau da, ikasleak bere helburuak zehazten lagunduko du, bere burua ebaluatzen lagunduko du. Laburtuz, eta era simple batean azalduta, horixe da Hizkuntzen Portfolio Europarrak ekartzen dituen aldatetako batzuk, hain zuzen lan honetan azalduko ditudanak.

Jakina, lantxo honen irakurleak ez dezala espektatiba faltsurik egin aurreko paragrafoan esan dudana irakurrita, Hizkuntzen Portfolio Europarrak (HPE) ez baitu erabat iraultzen eta hobetzen orain arteko hezkuntza sistema, baina gutxienez, lehen aipatu bezala, denok, geure esperientziagatik eta intuizioagatik zentzuzkoak diren hobetzeko gaiak, metodologia zehatz batekin lantzeko aukera ematen du.

Behin lan hau irakurrita, irakurleak ondoriozta dezala HPEk ze ekarpen jarriko digun eskura jakintza arlo honetan sartuta gaudenoi. Niri, gutxienez, intuizioz zentzuzkoak diren arlo askoren inguruan hausnarketa egiteko aukera eman dit.

Amaia Arauzo Uriarte

Portfolioa beste tresna bat ikasle eta irakasleen esku

Hezkuntzaren teorian gertatu den paradigma-aldaketak ezinbestean izan du bere isla ebaluazioa ulertzeko moduan. Izan ere, i(ra)kas-prozesua nolakoa, halakoa izango baita ebaluazioa. Atzean gelditu dira irakaskuntza ezagutza-transmisio hutsera mugatzen zireneko garaiak; gaur egun denok aitortzen dugu hizkuntzaren sistema gramatikala ezagutzea ez dela nahikoa ikasle batek hizkuntza menderatzen duela esateko.

Ikuspegi estrukturalistei ikuspegi komunikatibo, eklektiko eta konstruktibista¹ gailendu zitzaizkien. Irakasteak eta ikasteak zentzu berria hartu eta prozesua erabat aldatu zen. Prozesu horretan, ikaslea bihurtuko da ardatz, bera izango da bere ikastearen lehen egile eta erantzule. Eta irakaslea tresna lagungarria izango du prozesu horretan.

Paradigma aldaketa

60ko hamarkadara arte, ikuspegi estrukturalistak nagusi izan ziren. Horien arabera, hizkuntzaren sistema gramatikalaren ezagutza lehenesten zen eta gaitasun linguistikoa bilatzen zen (hizkuntza ikastea: egiturak, hitzak, soinuak...). Horrenbestez, ebaluazioa ezagutzak neurtzeko tresna izango da, ezagutzak kuantifikatzeko tresna, alegia. Eta horrela, garai hartan erabiltzen ziren azterketa-probek kodearen ezagutza jasotzen zuten, baina ez hizkuntza erabiltzen jakitea.

70eko hamarkadaren hasieran ikuspegi komunikatiboa nagusituz joan zen. Europako Kontseiluak 1976 urtean *Atalase Maila* izeneko dokumentua argitara eman eta hizkuntzen irakaskuntzarako oinarriak finkatu zituen. Lan egiteko marko bat ezarri zuen eta hizkuntzaren ikaskuntzan gutxieneko trebezia moldatzeko lortu beharreko ezagutzak eta trebetasunak deskribatzen ziren.

Ikuspegi komunikatiboa

Testuinguru horretan, aldaketa nabarmenak gertatu ziren hizkuntzen i(ra)kaskuntzan (Breen² 1987) eta hizkuntzaren izaerari buruzko eta komunikatzeko gaitasuna lortzeari buruzko kontzeptio berriak sortu ziren. Hizkuntza sistema hutsa izatetik komunikaziorako sistema izatera pasatu zen eta formei erreparatu beharrean, hizkuntzaren erabilera eta funtzioei erreparatzen hasi zitzaien.

Erreferentzia marko berri horretan, 80ko hamarkadan, komunikazio-egintzak beren testuinguru sozialean aztertze eskema kontzeptual berria garatu zen: *gaitasun komunikatiboaren kontzeptua*³. Horren arabera, *gaitasun komunikatiboak* lau azpi-gaitasun⁴ hartzen ditu:

¹ Ikuspegi komunikatiboa: ikas-prozesuak ikasleari eta ikaslearen beharrian komunikatiboei erreparatzen die; gramatika bidea da, ez helburua. Ikuspegi konstruktibista: ezagutza ez da hutsetik sortzen, baizik eta aurretik jasotako ezagutzen gainean eraikitzen da. Ikuspegi eklektikoa: ikas-prozesua atazen bidez gauzatzen da.

² Breen, M.P. 1987. "Contemporary paradigms in syllabus design". *Language Teaching*, 20, 2 eta 3.

³ Canale eta Swain autoreak izan dira kontzeptu hori garatu duten autore klasikoak.

⁴ HABE. *Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua HEOK*. Donostia, 1999.

- 1 *Gaitasun linguistikoa*: hizkuntza baten arauak jarraituz osa daitezkeen eta beren esanahi konbentzionala duten adierazpen egokiak sortu eta interpretatzeko gaitasuna.
- 2 *Gaitasun diskurtsiboa*: testuak taxutzen eta interpretatzen estrategiak erabiltzeko gaitasuna
- 3 *Gaitasun soziolinguistikoa*: komunikazio-egoerari egokitzeko abilezia.
- 4 *Gaitasun estrategikoa*: hizkuntzaren erabiltzailearen kode-ezagutzan egon daitezkeen hutsuneak edo beste arrazoi batzuk direla eta gerta daitezkeen komunikazioaren etena konpontzeko, hitzeko eta hitzik gabeko komunikazio-estrategiak erabiltzea.

Geroago, J. Van Ek autoreak (1986) gaitasun soziokulturala gehitu zion, hau da, hizkuntz komunitate baten ezaugarriak ere kontuan hartzea proposatu zuen. Horren arabera, hizkuntza eta kultura batera doaz eta horrela irakatsi eta ikasi behar dira.

Ikuspegi komunikatiboan, gela harreman sozialen egitura gisa ulertuko da. Harreman horiek pertsona artekoak, linguistikoa eta kulturalak izan daitezke. Beraz, elementu linguistikoak gain, pre-linguistikoa eta paralinguistikoa ere kontuan hartuko dira.

Gelako interakzioari, dinamikari eta testuinguruari garrantzia handiagoa emango zaio ikasgaiaren ohiko edukiari baino. Interakzioa ulertzeko modua aldatuko da. Eta ez da ikasitakoa errepikatzen mugatuko, zeren eta, lehen ez bezala, interakzioaren bidez sortutako *testuinguruak* ahalbidetu egingo baitu mezuan ezagutzen ez diren alderdi linguistikoa ulertzea edota erabilitako ezagutza linguistikoa osatzea. Hau da, *zenbait forma linguistiko halako egoeretan, halako pertsonekin eta komunikazioa-xedea kontuan izanik erabiltzen jakin beharko dute⁵ hizkuntza ikasleek*. Horrek guztiak ikuspegi metodologiko berriak ekarri zituen; honela, ikuspegi komunikatiboaren arabera, funtsezkoa izango da *prozesua* aintzat hartzea (ZER ikasten den baino garrantzitsuagoa *NOLA ikasten den*). Ikus ditzagun ikuspegi-aldaketa horren zenbait alderdi:

.1:

<i>ZER ikasi</i>	<i>NOLA ikasi</i>
Ikasgaiak du garrantzia	Prozesuak du garrantzia
Irakasleak finkatua	Ikas-irakasle artean negoziatua
Irakasleak hartzen ditu erabakiak	Ikasle-irakasleek hartzen dituzte erabakiak
Helburuak alde aurretik finkatzen dira	helburuak geroago finkatzen dira
Ebaluazioa: hizkuntzaren ezagutza	Ebaluazioa: ikaslearen arrakasta-irizpideen rabea
Ikaslearentzako egiten dira gauzak	Ikaslearengatik eta ikaslearekin egiten dira

Modu horretan, bi eredu⁶ agertzen zaizkigu:

- 1 *Produktuaren eredu*: garrantzitsuena hizkuntzaren alderdien ezagutza da eta ikasi behar dena edukia da: egitura, lexikoa, nozioak, funtzioak eta egoerak.
- 2 *Prozesuaren eredu*: garrantzitsuena da esaten dena, ulertzen edota egiten dena, eta alderdi linguistikoei bainoago, esanahiari erreparatzen zaio.

⁵ HEOK

⁶ G. Crookes eta S. Gass, 1993. *Tasks in a Pedagogical Context. Integrating Theory and Practice*. Clevedon: Multilingual Matters.

Ikuspegi horrek aldaketak ekarriko ditu unitate didaktikoen planifikazioan, eta, *atazetan oinarritutako irakaskuntza (AOI)* bultzatuko da. Eta horixe da ikuspegi komunikatiboaren barnean garatutako proposamenik indartsuena. Ikuspegi horretan oinarritzen den i(ra)kaskuntzaren helburua izango da ikasleak benetako prozesu komunikatiboetara sustatzea. Ondorioz, programazio malgu eta adostua eskatzen du, hau da, lehenago NOLA ikasi atalean zehaztutako premisei erantzungo dien programazioa eskatuko du.

Negoiazioan oinarritutako ikuspegi elkarreragile eta parte-hartzaile horrek ikasle eta irakasleen egitekoak aldatuko ditu. Irakasleen beharrek gidatuko dute programazioa. Eta horixe da, azken batean, hasieran aipatutako ikuspegi konstruktibistaren muina: *Ikuspegi konstruktibistaren arabera, ikastea ez da, jasotzen den informazioa errepikatzea mugatuko zeren eta, jasotako informaziotik abiatuta, ahalbideratuko baita esanahi berriak eraikitzea.*

Ikastea eraikitze-prozesu bat den aldetik, jasotzen den informazio-ale berri bakoitzak alde aurretik eraikia dagoen eskema linguistikoa aldatu egingo du, berri bat sortuz edo aurrekoa berreraikiz. Modu horretan, irakaskuntzak irakasleari eskatuko dio egoerara eta ikaslearen adimen-jarduerara egokitzea. Eta ikaskuntzak ikasleari esku-hartze aktiboa eskatuko dio; hau da, etengabe adimen-jarduerak egiten aritzea.⁷

Ebaluatzea

Horrenbestez bada, ebaluatze gaitasuna edo ardura irakaslearen esku egotetik, irakasle eta ikaslearen esku egotera pasatuko da. Orain arte irakaslea izan da ikaslearen gaitasuna neurtu duena; baina hemendik aurrera ikaslearekin partekatu beharko du zeregin hori. Ebaluazioak izaera berria hartuko du i(ra)kas-prozesuan; HEOKak honakoa diosku:

“Ikasleari berari ere bere jarduna ebaluatze aukerak eskaini behar zaizkio. Ikaslea bere ikas-prozesuaren jabe eta erantzule bihurtuko badugu, bide hori aztertu eta hobetzeko tresnak eman behar dizkiogu. Hausnarketa horrek izugarritzko mesedea egingo dio bere ikas-gaitasunaz (ikas-estrategien balorazioa eginez...) ikas-mailaz...gehiago jakiteko. Horretarako autoebaluazio-orriak, besteak beste, izango dira daturik esanguratsuenak biltzeko baliabideak: ikastunitate baten amaieran, esaterako zer ikasi dut? Zer egin dut? Nolako izan da nire hizkuntza performantzia?...Horrelako galderak egiteko tarteak eskaini behar dira. Baina, nekez bideratuko ditugu geure ikasleak autoebaluazioaren teknikaz baliatzera, aukeratutako metodologiak, ikas-materialak, taldeko dinamikak, irakaslearen rola...laguntzen ez badute. Prozesuko atal guztiak dira elkarren osagarri. Batek huts eginez gero, besteak esanahi gabe gera daitezke. (...) ebaluazioa jardunean aldaketak eragingo dituen hausnarketa eta barneraketa prozesua da (...).”

Merezi du argi izatea zertarako ebaluatzen dugun; zein den ebaluazioaren helburua. Ebaluazioak helburu pedagogikoa izan dezake i(ra)kaskuntzan parte hartzen duten alderdi guztiak hobetzeko, eta hala gertatzen da *ebaluazio formatiboan*. Helburu soziala ere izan dezake, kredenzialista, hau da, euskaltegitik haragoko esparruetan (gizartean) maila jakin bat egiaztatuta duela erakusteko; *ebaluazio sumatiboa*, alegia.

Argi dago, biak elkarren osagarri direla eta ebaluazioak funtzio biak bete behar dituela, baina paradigma berri horretan ebaluazio formatiboaren beharra azpimarratu egiten da. Beraz, ebaluazioa ez da soilik funtzio sumatibora mugatuko. Izan ere, ikasleari hain beharrezkoa zaion hausnarketa zabala egiteko behar besteko biderik ez dio ematen funtzio sumatiboak.

Amaierako ebaluazioak, produktuari dagokion ebaluazio sumatiboak, izaera kuantitatiboa duten datuak jasotzen ditu eta ez du prozesuaren inguruko informazioa kontuan hartzen: zerk huts egin duen edo zerk ez. Helburu nagusia ikaslearen hizkuntza emaitza jakitea da: GAI/EZ GAI.

Helduen Euskalduntzearen Oinarritako Kurrikuluak ere ebaluazio formatiboaren ideia nagusiak jasotzen ditu:

⁷ HEOK

“Ikaslearen hizkuntza emaitza ez ezik, ikasbidean emandako urratsak ere aztertu, baloratu eta aldaketak eragingo dituzten erabakiak hartuko ditu. (...) Gogoan har, ikas/irakas prozesuan esku hartzen duen oro dela ebaluagai, dena hobegarria den neurrian; horregatik, hobe beharrez urratuko den bidea dela ebaluazioarena.”

Ebaluazio formatiboa

Prozesuari dagokion ebaluazioa da, funtzio pedagogikoa duena, ikas-prozesuan ikasleen beharrei egokitutako programazioak burutu ahal izateko ebaluazioa da. Eta gabeziei antzeman eta gainditzeko neurriak proposatzen ditu, eta, hausnarketarako bidea jorratzen du. Ikasleari bere ikas-prozesua ulertu eta hobetzeko urratu beharreko jarraibideak eskaintzen dizkio.

Bestalde, ikaslearekin batera planifikatu eta garatzeko ebaluazioa da. Ikasleak ikaskuntza korapilatsu eta sistematikoa burutzeko adimen-jarduerak egingo ditu eta irakaslea, berriz, ikaslearen ikaskuntza horretara egokituko da.

Teknikak

Ikasleari dagokion ebaluazio formatiboaren izaera jarraitu eta kualitatibo hori jasotzeko teknika jakin batzuk ditugu. Eta teknika horiek lehen aipatutako funtzio pedagogikoa ahalbideratu beharko dute. Hauek dira nagusiak: Mapa kontzeptualak, arazoei aurre egiteko teknikak, kasuen metodoa, proiektuak, egunerokoa, eztabaida, galderen bidezko teknika, portafolioa.

Portafolioa ebaluaziorako teknika/tresna

Portafolioak, aipatutakoekin batera, honako bi alderdi hauek uztartzen ditu: batetik, ezagutza eraikitzean ikaslearen parte hartze aktiboa bultzatzea eta, bestetik, prozesu horretan irakasleak bitartekari gisa duen egitekoa azpimarratzea.

Arte Ederretatik eratorritako ideia da, arlo horretan ohikoa baita lanpostu batera aurkezten direnei burutuak dituzten lanik onenak erakus ditzaten eskatzea (curriculumak, book...). Modeloek, artistek, argazkilariek, disenatzaileek eta publizistek beren obrarik onenak erakusteko erabili izan dute Portafolioa. Fisikoki liburuxka edo koaderno baten itxurakoa da; paperak gordetzeko zorroa, azken batean. Lanerako karpeta edota lanerako *dosiera* ere esaten diote.

Aitzindariak

Portafolioa Bigarren Hizkuntzen i(ra)kaskuntzan 70eko hamarkadaren amaieran eta 80ko hamarkadaren hasieran erabiltzen hasi zen. Calfee eta Perfumo-ren⁸ arabera (1996) Sweet-ek egin zuen lehenengo esperientzia portafolioarekin 1976an. Portafolio mugatu hartatik hona, –ikasleentzako interesa pizten zuten gaien zerrenda jasotzen zuen–, kontzepzioa, erabilera eta aplikazioa zeharo aldatu dira.

Portafolioa ebaluaziorako tresna gisa oso erabilgarria da, baina ebaluazioaz gain, beste erabilera batzuk ere baditu, adibidez: dokumentaziorako Portafolioa (gai baten inguruko informazioa eta lanak jasotzen dituen), Erakusteko Portafolioa (lehen aipatutako artisten lanik onenak jasotzen dituen) edota Prozesuko Portafolioa (ataza baten inguruan erabilitako materiala eta egindako lanak jasotzen dituen).

Ebaluaziorako portafolioa

Artikulu honetan landuko dugun portafolio mota Ebaluaziorako Portafolioa da. Ebaluaziorako portafolioa ikasleak eginiko *lanen bilduma* da, ekoizpena, alegia; finkatutako helburuei ondoen

⁸ R. Calfee eta P. Perfumo. *Writing portfolios in the classroom*. New Jersey, 1996.

egokitzen zaizkien lanak ekoizpen-lanak edota aurrerapenen froga diren lanak jasoko ditu portafolioak.

Gerta liteke, hargatik edo horregatik, ekoizpen-lan kaskarrak era jaso behar direla erabakitzea. Beraz, lanak aukeratu eta bildu egiten dira eta horrekin batera, ikaslearen *ahalegin*, *lorpen* eta *aurrerapenak* ere jasotzen dira.

Ebaluaziorako irizpideak ere biltzen ditu portafolioak. Ikasleak berak aukeratu eta xeheki arrazoitu beharko du zergatik gordetzen duen portafolioan ekoizpen-lan bat (eta ez beste bat). Hausnarketa eragiten duen tresna da, beraz; ikasleak estrategia metakognitiboak erabiltzera bultzatzen ditu eta autoebaluaziorako gaitasuna lantzen du.

Honako arlo hauetan lagun lezake:

- Ebaluazioa ikasprozesuaren jarduerekin lotzen.
- Ikasleen autonomia maila eta aurrerapenak neurtzen.
- Ikasleek egindako lanaren ahaleginaz eta jardueren betetze mailaz jabetzen.

Portafolioan *ikas-prozesuaren osotasuna* islatuko da, hau da, nola, noiz eta non barneratu dituen edukiak, trebetasunak eta gaitasunak. Bestalde, Portafolioaren egitura *irekia* da; hau da, zein eduki izango duen edota zenbat atal izango dituen, ikasle-irakasleen arteko adostearen ondorioa izango da. Hala ere, komeni da gutxieneko egitura bat izatea, esaterako, Ana Lucia Delmastro⁹ autorearen arabera, 5 atal¹⁰ izan ditzake:

- 1 Aurkezpen gutuna: Autoreari buruzko informazioa jasotzen da eta aurrerapenei inguruko laburpena. Ikastaro bukaeran bete behar da, baina Portafolioaren hasieran jasota geratu behar da.
- 2 Edukien taula: itemak eta orrialde zenbakiak.
- 3 Portafolioan gorde ditugun dokumentuak, hau da, ikastaroan sortutako lanak: derrigorrezko itemak eta aukerakoak.
 - 3.1. Derrigorrezko itemak: Programazioaren helburu, gai eta edukiekin harremana duten lanak.
 - 3.2. Aukerako itemak: aparteko lanak.
- 4 Datak: sarrera edo item guztietan.
- 5 Hausnarketa, item bakoitzeko eta Portafolioaren ingurukoa.
 - 5.1. Item bakoitzaren ostean: itemak zergatik aukeratu dituen.
 - 5.2. Aurkezpen-gutunean: Portafolioaren inguruko hausnarketa orokorra.
 - 5.3. Portafolioaren bukaeran edota atazen ostean: interes-galdesorta, komentarioak, ikaskideen iradokizunak...

⁹ Ana Lucia Delmastro. *El Portafolio como estrategia de evaluación en la enseñanza de lenguas extranjeras: fundamentos teóricos y orientaciones procedimentales* Maracaibo, 2005.

¹⁰ Oro har komeni da estrategia metakognitiboak lantze aldera, interes-galdesortak edota jarreraren eta estrategien inbentarioak erabiltzea.

Planifikazioa

Argi dagoena da, Portafolioak sistematikoki planifikatua behar duela izan. HEOKi jarraituz, ebaluazioa prozesu bat izan arren, dituen unean uneko ezaugarriak bereiztea komeni da eta Portafolioaren aplikaziorako ere gomendagarria da hiru aldi kontuan hartzea:

1. aldia

*Planifikazioa*¹¹

I(r)akas prozesuari ekin aurretiko lana dugu hau. Kontuan hartuta gurean ez dagoela Portafolioarekin lan egiteko ohiturarik, Portafolioaren inguruko informazioa ematea are garrantzitsuagoa da. Lehenengo aldi honetan, beraz, zer den, zertarako balio duen eta nola erabiltzen den azaltzeak baldintzatuko du Portafolioaren erabilera egokia.

Ikas-prozesuaren helburu eta gaitasunekin erlazionaturiko jarduerak aukeratzeko eta jarduera horiek ebaluatu ahal izateko irizpideak finkatzeko unea da. Garrantzitsua da azpimarratzea aldi honek eta guztiek ere izan behar duten izaera adostua.

2. aldia:

*Garapena eta jarraipena*¹²

Prozesuan zehar burutzen den ebaluazioa da eta ikasle bakoitzaren eta taldearen ikas-prozesuaren jarraipena egiteko eta berbideratzeko balio du. *Tutoretza-saioen* bidezko jarraipena eginez, kontuan hartuko ditugu ikas-prozesuan finkatutako helburuak eta helburuok zein neurritan lortu diren, lortutako aurrerapenak, ikusitako zailtasunak, erroreen behaketa, motibazioaren gorabeherak, ikas-estrategiak... Gainera, hobetzeko neurriak proposatu eta Portafolioan jasota geldituko dira.

Komeni da irakasleak jarraipenerako karpeta bat izatea, bertan batetik jarduerak, hausnarketak eta portafolioaren erabileran azaldu diren zailtasunak jasoko ditu eta bestetik, ikasle bakoitzaren zein taldearen gaineko jarraipena egin ahal izateko informazioa. Irakaslea tutoretza-saioen bidez, ikasleen beharretara egokituko da eta egindako lanaren jarraipena burutuko du. Tutoretza hauen bidez, lan egiteko, antolaketarako eta autoebaluziorako ohitura bultzatuko da.

3. aldia:

*Bukaera*¹³

Batetik, bukaerako ebaluazioak ikastaroan finkatutako helburuak zenbateraino lortu diren esango digu. Bestetik, prozesuan zehar egindako lanaren sintesia izango da. Eta azkenik, produktua zein Portafolioaren esperimenez ebaluatuko dira.

HEOK eta portafolioa

Azaldutakoaren arabera, beraz, interpreta liteke portafolioak HEOKek ebaluazioari aitortzen diona praktikara eroatea ahalbidetzen duela:

¹¹ HEOKek “hasierako ebaluazioa” esaten dio.

¹² HEOKen “prozesuko ebaluazioa” esaten zaio.

¹³ HEOKen “bukaerako ebaluazioa” esaten zaio.

“Ebaluazioa jardun bateratzaile bat da, eguneroko jardunean sortzen den informazioa bilduz eta landuz, aldez aurretik ezarri diren helburuak betetzen diren ala ez egiaztatu eta hobeto bete daitezten egin beharreko aldaketak erabakitzen lagunduko duena. Beraz, ebaluazioa ez da ikas-irakas prozesuaren amaieran edo une jakinetan kokatzen den urratsa, ikas-irakasbidean ikasle eta irakasleek eskuetan etengabe darabilten tresna emankorra baizik. Hori dela-eta, ebaluazioaren ikuskera honek kurrikuluaren dokumentuaren atal guztietan elkarreragile bihurtzen du ebaluazioa bera, eta prozesu bizi eta oparo izatera bultzatzen. “

Europako Erreferentzia Markoa

Egun, Europako Erreferentzia Markoa dugu hizkuntzen irakaskuntzarako eta ebaluaziorako helduleku. 1971. urteaz geroztik lantzen ari den prozesu baten azken urratsa da; Europako kontseiluak bultzatutako proiektua da eta oinarrian bere helburua da ikasteko prozesuan beharrezkoak diren egitarauak, kurrikuluak eta ikas-mailak definitzeko deskribapen zehatza eta oinarri bateratua egitea baita eleaniztasuna eta kultur aniztasuna sustatzea ere.

Hizkuntza guztietarako Erreferentzi maila bateratuak eta irizpide-batasuna ezartzen ditu. Markoak hizkuntza komunikazio-tresnatzat hartzen du eta irizpide komunikatiboak eta pragmatikoak nagusitzen dira; bat egiten du ikuspegi komunikatibo eta soziokonstruktibistekin eta proposamen metodologikoak egiten ditu. Gardena, integratzailea eta koherentea izan nahi du eta i(r)akas-prozesuari logika eman nahi dio.

Ekarpen ugari egin ditu. Komenta ditzagun labur-labur: Alde batetik Erreferentzi mailak¹⁴ zehazten ditu, bestetik, Deskriptore argigarriak¹⁵ eskaintzen dizkigu, hirugarrenik, jardueretan oinarritutako ikuspegia¹⁶ proposatzen du. Azkenik, artikulua honetan batez ere interesatzen zaigun arloa garatzen du: *Ebaluazio tresnak (Auto-ebaluazioa, irakaslearen ebaluazioa eta kanpo ebaluazioa)*.

Hizkuntzen Portfolio Europarra (HPE)

Autoebaluazioaren bidez, ikaslearen autonomia bultzatu nahi da. Ikaslea da aktore eta protagonista nagusia eta bere ikas-prozesuaz jabetzeko tresnak eskaintzen dizkio. Tresna horietako bat Hizkuntzen Portfolio Europarra dugu eta horren egiteko nagusia da ikasleei beren ezaugarriak ezagutzen, gabeziak aurkitzen eta eraginkor ikasten laguntzea.

Europako Erreferentzia Markoaren ondorio logikoa da *Hizkuntzen Portfolio Europarra*, eta horren erakusle da ikaskuntza bideratzeko hainbat tresna tartean direla, besteak beste, erreferentzi mailak, deskriptoreak eta ebaluazio eta autoebaluazio eskalak.

Hizkuntzen Portfolio Europarra hizkuntzak ikasteko kontzientzia eta autonomia garatzeko tresna da, ikas-prozesua ebaluatzeko eta bideratzeko tresna. Halaber, eleaniztasuna eta kultur aniztasuna bultzatu nahi ditu.

¹⁴ A1-A2: Oinarrizko erabiltzailea (hasierakoa eta tartekoa).
B1-B2: Erabiltzaile independente (atalasea eta aurreratua).
C1-C2: Erabiltzaile gaitua (gaitasun eraginkorra eta menderatze maila).
Erreferentzi mailak zehaztuta, ikasleak mailakatzeko, azterketak bateratzeko eta homologatzeko markoa finkatzen du.

¹⁵ Adibidez, A1 mailako Irakurmenean horrela dio deskriptoreetako batek “Gai naiz oso testu laburrak eta errazak ulertzeko, esaldiz esaldi irakurritz, izen, hitz eta oinarrizko esaldi arruntak ulertuz eta berriz irakurritz, hala behar duenean”.

¹⁶ Hizkuntza xehetasunak aztertu baino lehen, jarduera komunikatibo erreala sortzen dira eta ikasleei hizkuntzaren benetako erabilera jorratzeko aukera ematen zaie.

Honela dio HPEk:

“Bere (*portfolioaren*) xedea hauxe da: hizkuntzaren bat ikasten ari zaren hori hobetzen eta ongi bideratzen, bai ikastaroren bat egiten ari bazara eta bai bakarka ikasten ari bazara ere. Era berean, hizkuntzez eta kulturez dituzun ezagutzak besteri erakusteko balioko dizu (...) Zeu zara Portfolio honen jabea. Helduaroan zehar erabil dezakezu tresna hau, ikasgelan edo ikasgelatik kanpora, ikasi duzunaren erakusgarri.”

HPE ikaslearena da eta Bigarren Hizkuntzen i(ra)kaskuntzan, irakaslearen laguntzaren bidez, oso tresna baliagarria izan daiteke.

Egitekoak

Hizkuntzen Portfolio Europarrak bi egiteko ditu:

- 1 Maila egiaztatzekoa: hizkuntza-gaitasunen erregistro bat sortzea da helburua. Ikaslea ikastetxez aldatu eta beste herrialderen batera badoa, lan eta ikasketak direla bide ikaslearen mugikortasunari erantzun ahal izango dio.
- 2 Egiteko pedagogikoa: helburua ikaslearentzat hizkuntzaren ikas-prozesua gardenago bihurtzea da, hausnarketarako eta autoebaluaziorako gaitasunean lagunduz eta bere ikas-prozesuaren erantzunkizuna piskanaka bere gain hartzera trebatuz.

Eusko Jaurlaritzak (2004) ALTE eta EQUALSEn Portfolioa bultzatu du hizkuntza ikasketetarako, eta, lau hizkuntzatan argitara eman du: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez. Hizkuntzen Portfolio Europarraren bertsio hau EAQUALS¹⁷ eta ALTE¹⁸ erakundeek elkarlanean egin dute, Europako Kontseiluko Hizkuntza Bizien Atalak Strasbourg-en koordinatzen duen proiektu pilotuaren baitan.

Atalak

Hizkuntzen Portfolio Europarra hiru atal hauek osatzen dute, 1) Hizkuntzen pasaporteak; 2) Hizkuntza-biografiak eta 3) Dossierrak. Ikus ditzagun banan-banan:

1. Hizkuntzen Pasaportea. –

Hiru azpiatal ditu:

- 1.1 *Hizkuntza trebetasunen profila, Erreferentzia Marko Europarrarekin lotua.* Ikasleak une jakin batean hizkuntzetan duen gaitasun-maila erakutsiko du era errazean. Europako Erreferentzia Marko Bateratuko eskala eta deskriptoreak erabiliz ikasleek duten hizkuntza-gaitasuna ebaluatuko dute “Hizkuntza trebetasunen profila” taula betez. Gaitasun-maila zehazterako orduan, Marko Europarraren Erreferentzi mailak izango dira abiapuntu (A1, A2, B1, B2, C1 eta

¹⁷ EAQUALS (European Association for Quality Language Services) elkarte pan-europarra da. Bere baitan biltzen dituen erakundeek hizkuntza-zerbitzuak ematen dituzte eta kalitate-arauak zaintzen, bai bere irakaskuntzan eta bai antolamenduan ere. Erakunde partaide bakoitza EAQUALSek ikuskatzen du hiru urtez behin, eskaintzen dituen zerbitzuen kalitatea EQUALSEn jokabide-kodearekin bat datorrela bermatzeko.

¹⁸ ALTE (Association of Language Testers in Europe) elkarteak Europako hizkuntzen azterketak egiten dituzten hainbat erakunde biltzen ditu. Partaide diren erakundeek goi-mailako irizpideak zaintzen dituzte hizkuntza-azterketen arau europar bateratuak garatzeko, balioztatzeko eta hobetzeko. ALTEko partaideen azterketak berariazko erreferentzia-taulan agertzen dira.

C2), eta maila bakoitza definitzeko deskriptoreen taulak erabiliko dira, baina auto-ebaluaziorako formulatuta.

1.2 *Hizkuntza-ikasketen eta kultura arteko esperientzien bilduma.* Hizkuntza esperientzien eta kultura arteko esperientzien laburpena egingo du.

1.3 *Ziurtagiriak eta diplomak.* Hizkuntza horietan lortu dituen ziurtagiri eta egiaztagiriak jasoko ditu.

2. *Hizkuntza-biografia.* –

Hizkuntzen ikaskuntzan egin duen ibilbidearen eta izandako esperientzien inguruan gogoeta egitera bultzatu nahi du ikaslea. Biografia, Dosierrarekin batera, etengabe erabiliko dugun atala izango da; etengabe eguneratuta egon beharko duena.

Batez ere, ikasleari bere ikas-prozesuan dituen lehentasunak planifikatzeko eta lortutakoa neurtzeko eskalak eskaintzen dizkio. Nolabait esateko, lorturiko gaitasunak eta lortu beharrekoak elkarren ondoan azaltzen dira, ebaluazioa eta planifikazioa lotuz eta ikas-prozesuaren gaineko hausnarketa bultzatuz. Beraz, ikasleak bere ikas-prozesuaz hausnartzea bultzatu nahi da (kulturarteko esperientziak barne), helburuak finkatzea eta horien jarraipena egitea (astean behin, bi asterik behin...), planifikazioa egitea, azken batean.

Helburuak finkatu eta helburuok lortzeko landu beharrekoak zein izango diren idatziz jasota geldituko dira.

Sei *azpiatal* ditu:

2.1 *Nire ibilbidea hizkuntzak ikasten.* Hizkuntza ikasten izan dituen esperientziak zerrendatuko ditu kronologikoki.

2.2 *Nire hizkuntza-esperientzia eta kulturarteko esperientzia nagusiak.* Ikasleak bere aburuz garrantzitsuenak izan dituen hizkuntza-esperientziak eta kulturarteko esperientziak deskribatuko ditu.

2.3 *Ikasten ikasiz*¹⁹. Ikasleak zer nolako hizkuntza-ikaslea den jakiteko eta horretaz hausnartzeko galdetegiei erantzungo die.

2.4 *Ikas-jarduerak.* Egundaino ikasleak hizkuntza nola ikasi duen eta ikastekoan eraginkorrena zer gertatu zaion hausnartzeko taulak beteko ditu.

2.5 *Nire helburuak hizkuntzak ikasterakoan.* Hemen hizkuntza zergatik ikasten ari den idatziko du eta berarentzat zein diren hizkuntza-trebetasun garrantzitsuenak.

2.6 *Nire gaur eguneko lehentasunak hizkuntza-ikasketan.* Ikasleak ikastaroan lortu beharreko helburuak finkatuko ditu. Horretarako autoebaluazio taula (pasaportearen erabiltzen dena) eta deskriptoreak (kontrol zerrenda; biografian dago) erabiliko ditu.

3. *Dosierra.* –

Azken atal honen bidez ikasleek beren ikas-prozesuan erabilgarri gertatu zaizkien edo egindako aurrerapenen adierazgarri diren lanak bildu ahal izango dituzte (idatziak, ikus-entzunezkoak...).

¹⁹ Hasteko, esan beharra dago Hizkuntzen Europar Portfolioan EQUALS eta ALTE erakundeek sortutako bertsioan agertzen ez diren bi atal jasotzen direla: *Ikasten ikasiz* eta *Ikas-jarduerak*. Haiak jaso ez arren, nire ustez, ikas-prozesuaren hausnarketarako arlo garrantzitsuak dira eta, beraz, hemen jaso egingo ditugu.

Bilduma horrek ikaslearen aurrerapena nolakoa den eta ikaslea zertarako gai den erakutsiko du: ikasleari egingo dituen jardueren nondik norakoaz jabetzen lagunduko dio eta horren testigantza izatea ahalbideratuko dio.


Ikasleak berak ezarri diren helburuak lortu direla egiaztatzen duten lanak Dossierrean gordeko ditu. Honela, aldizka-aldizka, biografian ezarritako helburuak berraztertzen direnean, dossierreko materiala ikusi eta aztertuko da. Ez dira ikaslearen lan edo ariketa guztiak gordeko eta ikasleak aukeratu beharko du zer gordetzen duen eta zer ez, xehetasunez arrazoituta. Horretarako, Biografian zehaztuko diren irizpideak erabiliko ditu. Horrek ebaluaziorako gaitasuna eskatzen eta hobetzen du ikaslearengan.

Hurrenkera

Hizkuntzen pasaporte, Hizkuntza-biografia eta Dossierrean lantzeko zein hurrenkera erabili, aukerakoa izan liteke, ez dago hurrenkera zehatzik. Little eta Percová²⁰ (2003) autoreek *Irakasleentzako gidan* bi modu aipatzen dizkigute:

Lehenengo proposamenean, hasieran, Dossierrean lantzea aipatzen da. Jasotako dokumentuen azterketak Biografian agertzen diren atalen hasunarketa linguistikoa eragingo du eta, amaieran, biografian egindako hausnarketak *Pasaportea* osatzeko nahikoa datu eskainiko dizkio ikasleari.


Igo proposamena:



Bigarren proposamenean, Hizkuntzen Pasaportearen aurkezpena hasieran lantzen da, ikaslea bere hizkuntza-nortasunaz hausnarketa egitera sustatzeko, eta bere buruari galde egin diezaion zenbateraino den hizkuntza/hizkuntzen jabe. Ondoren, biografia lantzeari ekiten diote, eta norberaren hizkuntza-helburuak definitzeari. Ikasitakoa, emaitzak alegia, dossierrean biltzen dira, biografian ebaluatzen dira, eta hori guztia beste helburu batzuen oinarri izango da.

²⁰ David Little y Radka Perclová (2003) *“El Portfolio europeo de las lenguas: guía para profesores y formadores de profesores”* (Jon Imanol Iturriotzek euskaratua).

2. proposamena:



Irakasleentzako gidak dioen bezala:

“Ordena edozein delarik ere, ikaslearen gaitasun komunikatiboak garatu nahi dituen edozein ikasketa-programarentzat da baliagarria HPE. Printzipioz, edozein programa komunikatiboren helburuak birformula daitezke autoebaluaziorako oinarria osatzen duten hizkuntza gaitasunari buruzko definizio-terminoak erabiliz”.

Geurera ekarrita, programazioetako unitate didaktikoetan adierazten diren helburuak HPEra birformulatu beharko ditugu HPE erabiliko badugu. Ikus dezagun horren adibide bat:

Eman dezagun, C1 mailako unitate didaktiko baten **helburua** hauxe dela:

Txostenak egituratzen eta idazten ikasi

Helburu hori HPEra eraman eta birformulatuta, honela geldituko litzateke:

Gai naiz gai zailak ere erraz egituratuta aurkezteko, puntu nagusiak azpimarratuz, esaterako idazlanetan eta lan-txostenetan.

Hizkuntzen Portfolio Europarra praktikara eraman ahal izateko ezinbesteko pausoa da *Biografian* helburuak ezartzeaz batera ikasleari autoebaluazioa burutu ahal izateko irizpideak zerrendatuta ematea. Helburuak eta ebaluazio irizpideak Portfolioan idatziz jasoko dituzte. Eta horrela, Irakasleak zer ebaluatuko zaien argi adierazi beharko die, ikasleek argi izan dezaten zer autoebaluaratu behar duten.

Horrela, goian aipatutako helburua lortzeko *ebaluaziorako irizpideen* adibide bat, honako hau izan daiteke:

Puntu nagusiak azpimarratuz, esaterako idazlanetan eta lan-txostenetan, ikaslea gai zailak ere erraz egituratuta aurkezteko gai ote den ebaluatzeko, irakasleak irizpide hauek jakinaraziko dizkio ikasleari, gero, ikasleak autoebaluazioa burutu ahal izan dezan.

- Lexikoa kontuan hartuko zaio (Esaterako: gaiarekin lotura izatea, hiztegi orokorreko hitzak ondo erabiltzea, hiztegi espezializatuko hitzetan hutsak egitea).
- Testu antolatzaileak. (Esaterako: oro har, testu antolatzaileak egokiro erabiltzea).
- Testuaren egitura (Esaterako: gauzak argi, erraz eta ongi egituraturik adieraziko ditu, eta testu koherenteak sortuko ditu).

1. Paragrafoak egokiro sailkatzea

2. Paragrafo motak bereiztea:

gaia zehaztekoak

kausak eta ondorioak adieraztekoak

konponbideak eta idazlanen bukaerakoak

Eta abar.

HPEren erabilera egokia behin lan hau eginda gertatuko da.

Autoebaluazioa eta hausnarketa

Autoebaluazioa eta hausnarketa HPEren oinarrietako bat dira. Izan ere, batetik, pasaportearen beren hizkuntza-gaitasunaz hausnartu eta ebaluatu behar dute ikasleek Europako Erreferentzia Marko Bateratuko eskala eta deskriptoreak erabiliz. Bestetik, biografian, beren helburu didaktikoak aukeratu behar dituzte, eta hori egin ahal izateko, tarteka-tarteka haien aurrerapausoak ebaluatu beharko dituzte, hausnartu ondoren. Eta, azkenik, dosierrean gordetzen (edo gordetzen ez) den materialaren aukeraketa ere hausnarketa osteko autoebaluazioan oinarritzen da. Eta hain dago uztartua autoebaluazioa HPEren asmo pedagogikoekin, ebaluazioa egitea ohitura bihurtzen baita, eta ebaluazioa bera ohiko jarduera.

Beraz, *planifikazioak-garapenak-(auto)ebaluazioak*, etengabe elkarri elikatuz oinarritzko prozesua osatzen dute: Portfolioa, alegia.

Autoebaluazioa eta hausnarketa, autonomo izatea alegia, behin eta berriz aipatzea bat dator Europako Kontseiluak indartu nahi duenarekin, hots, bizitzan zehar norberak modu autonomoan ikasi behar duelakoarekin. Eta gogorazten digu ikaslea (norbanakoa) beti izango dela bere Portfolioaren jabe eta erantzule. Horrenbestez bada, kulturarteko esperientziek eta euskaltegitik kanpoko jarduerak duten garrantzia azpimarratu eta hizkuntzaren ikaskuntza hezkuntza sistematik harago doala azaleratzen du HPEk.

HPEren abantailak

Ikuspegi metodologikotik: Prozesu eta produktuaren arteko oreka bultzatzen du.

Ikas-prozesuaren ikuspuntutik: konstruktibismoaren ideari jarraituz, ikasleen beharretara egokitutako ikaskuntzak sortu eta estrategia metakognitiboak lantzen ditu.

Irakaslearen ikuspuntutik: ikaslearen eta taldearen beharrei egokitutako programazioak egitea ahalbidetzen du eta, gainera, ikasle-irakasle arteko komunikazioa bultzatzen du.

Ikaslearen ikuspuntutik: ikasleen gogobetetzea, antolaketa, autoebaluazioa, prozesuaren gaineko kontrola eta ikastaroan burututako materialen hausnarketa eragiten ditu.


Horrez gain,

- Ikasleek benetan zertan gai izan daitezkeen idatziz jasota ikusten dutenean, beren buruarenganako konfiantza areagotu egiten da.
- Ikasleek beren hizkuntza-gaitasunari eta ezagutzari buruzko hausnarketari denbora gehiago eskaintzen diote.
- Garrantzia ematen zaio hizkuntzaren alderdi komunikatiboari; gaitasun komunikatiboan gertatzen den aurrerapenaz jabetzea eta ikustea ahalbidetzen du.
- Ikasleen arteko eta ikasle-irakasleen arteko harremanak hobetu egiten dira ikas-prozesuaren ikuspegitik.
- Irakasleak sortzaileagoak izan daitezke, ikasleen beharretara egokitzeko beharra izango dutelako.
- Ikasleek beren hizkuntza-gaitasunak ohartukiago garatzeko aukera dute.
- Ikasleak jabetu egiten dira beren hizkuntza-maila, euskaltegitik kanpo ere, hobetu egin dezaketela, HPEk Biografian, esaterako, ikasgelatik kanpoko jarduerak lantzerantz bultzatzen baititu.

Desabantailak

Desabantailarik nagusia da Portafolioa erabiltzeko kulturarik (ohiturarik, inertziarik, esperientziarik) ez dagoela. Ondorioz, irakasleak mesfidati ager daitezke tresna hori erabiltzerakoan. Honez gain, hasiera batean suposa lezakeen lan-zamak ere ez du erakargarri bihurtzen. Ikasleak mesfidati agertuz gero, erraz susta daitezke Portafolioa erabiltzera baldin-eta irakasleak sinetsi egiten badu. Beraz, garrantzitsua irakasleak horren beharra sentitu eta egin nahi izatea da.

Portafolioa Bigarren Hizkuntzen Irakaskuntzan: irakaslearen ikuspuntua*



* Ana Lucia Delmastro. *El uso del Portafolio en la enseñanza de lenguas extranjeras*. Investigación y Postgrado. Vol. 20 nº 2. 2005

HPEren Esperimentazioa

Atal honetan, Hizkuntzen Portfolio Europarra hizkuntzak ikasteko kontzientzia eta autonomia garatzeko tresna gisa aurkeztu dut, ikas-prozesua ebaluatzeko eta bideratzeko lagungarria dena eta eleaniztasuna eta kultur aniztasuna bultzatu nahi dituen.

Ondorengo lerroetan, adierazitakoak praktikan betetzen diren ala ez ikusiko dugu, eta era berean, ikasleek eta irakasleak esperientziaren eta HPEren gainean egiten duten balorazioa jasoko dut.

Has gaitzen beraz, hasieratik.

Esperimentazioaren helburua HPEk hizkuntzen i(ra)kaskuntzarako dituen onurak neurtzea izan da. Horrela, HPE tresna baliagarria dela frogatu nahi izan dut honako alderdiotan.

HELBURUAK: HPE tresna baliagarria dela frogatu

- ✓ Alderdi komunikatiboari erreparatzen dion tresna hizkuntzen ikaskuntzarako eta ebaluazio formatiborako.
- ✓ Ikas-prozesua bideratzeko eta ikasle-irakasle rola aldatzeko: irakaslea ikasleari lagungarri zaion tresna.
- ✓ Ikasleen autonomia garatu eta ikasleek ikas-prozesuaren ardura beren gain hartzeko.
- ✓ Hizkuntzen ikaskuntza euskaltegitik harago doan ikas-prozesua dela azalarazteko; kultur aniztasuna eta eleaniztasuna bultzatzen duena.
- ✓ Hizkuntza-gaitasunean eta ikasleen emaitzetan: hobeak dira.

Lagina

Ulibarri euskaltegiko administrazioiko ikasleek osatutako bi taldek hartu dute parte. Bata, urritik otsailera bitartean aritu dena eta bestea otsailetik ekainera bitartekoa. Zehaztu beharra dago, hala ere, bi talde ezberdin izanik ere, otsailetik ekainera bitarteko taldean aritu diren ikasleen erdiak urritik otsailera bitartekoan ere ibili direla. Hamar ikasletik bostek utzi zuten taldea, hau da, ikas-prozesua eten zuten eta hiru integratu ziren otsailetik ekainera bitarteko taldean. Horrek, aurrerago ikusiko dugun bezala, HPEren esperimentazioan eragina izan du. Aitzitik, ez da izan esperimentazioak izan duen etenik handiena; izan ere, irakaslea bajaran egon zen 5 astez.

Egutegia

TALDEAK	JARDUERA	DATA
A taldea	HPEren aurkezpena	Urria
A taldea	Inplementazioa	Urritik otsailera
B Taldea	HPEren aurkezpena 3 ikasleri	Otsaila
B Taldea	Inplementazioaren jarraipena /irakaslea 5 astez bajan	Otsailetik ekainera
A eta B taldeak	HPEren balorazioaren datu bilketa	Uztaila

Bestalde, taldeen modulazioa, egunean 5 ordukoa izan da, horrela bada, 5 ikasle 840 orduz ibili dira eta 8, 420 orduz. Kontuan hartuta, urritik ekainera bitarteko egunean bi orduko talde arruntak 330 ordukoak izaten direla, esperimentazioaren alderdi ahul eta indartsuak antzemateko aukera eman du eman/jasotako ordu kopuruak.

HABEko 2.maila eta 3.maila burutu dute, hurrenez hurren.

Komeni da ikasleen tipologia zein den azaltzea: gehienak karreradunak dira eta ikasteko diziplinan ohituago daude; baina, aldi berean, euskararekiko apenas atxikimendurik izan ohi duten ikasleak dira eta helburu argia dute: azterketa gaitztea. Talde hauetan bereziki landu beharreko alderdiak jarrera eta motibazioarena izaten dira. Eta horrela, HPEren aplikazioari beste zailtasun bat gehitu zitzaion. Alta, egun, gero eta gehiago dira tipologia honetako ikasleak, administrazioko langileak izan edo izan ez. Beraz, euskaltegiko edozein taldetan izango dugun zailtasuntzat har daiteke.

Metodologia

Arestian aitatutako helburuari heltzeko eta egindako hipotesiak frogatzeko metodologia kualitatiboa eta kuantitatiboa erabili ditut.

Alde batetik, diskurtsoak aztertzea interesatzen zait, ebaluazioaren-ikasprozesuaren inguruan dituzten diskurtsoetan sakondu nahi izan dut-eta. Hau da: Portfolioak nola lagundu edo eragin duen jarreran, motibazioan, ikas-prozesua bizi izan duten moduan, euskararekiko duten inplikazioan: komunikazioa tresna den, nortasun elementua, kultura berezia...

Horretarako erabili ditudan tresnak, *Eztabaida taldea* (elkarrizketa erdi-egituratua) eta *Elkarrizketa irekia* izan dira.

Eztabaida taldea // Elkarrizketa erdi-egituratua

Helburua, gidoi baten laguntzaz, diskurtso bakoitzean sakontzea izan da. Teknika honen bidez, taldekideen esperientziak era irekian jaso eta esperimentazioa aurrera eraman den testuingurua hobeto ulertzeko informazioa lortzen lagundu dit. Eta jakina, ikasleen eta esperientziaren arteko erlazioaz jabetzeko aukera ere izan dut. Eztabaida taldera 13 ikasletik 8 etorri ziren. Horietatik 5, 820 orduz ibilitakoak eta 3, 420 orduz. "Memoria de experimentación del PEL (Portfolio Europeo de las Lenguas" español de secundaria" txostenean azaltzen den gidioa euskaratu eta erabili dut. Aldez aurretik finkatutako hipotesiak frogatzeko egokia iruditu zitzaidan eta bertan adierazitako helburu eta gidoiari jarraitu diet (ikus 1.dokumentua). Horrez gain, atxikita dago eztabaida taldearen transkripzioa (ikus 5.dokumentua).

Elkarrizketa irekia

Irakaslearen diskurtsoan sakontzeko, teknika hau erabili dut, oraintsu aipaturiko txosten teknikoan irakasleari zuzendutako galdetegi baten laguntzaz. Telefonoz egin behar izan dut irakaslea bajan egon delako. Ikus 2. dokumentua.

Horrez gain, metodologia kuantitatiboa erabili dut.

Galdesorta eta galdera irekiak erabili ditut modu bideratuan argitu nahi izan ditudan hipotesiak frogatzeko. Europako kontseiluak HPEren ebaluaziorako sortutako inkestaren eta Iralekoek utzitako inkesten moldaketa egin dut, nik sortutako galderak ere gehituz. Ikus 3.dokumentua. 10 ikaslek bete dute inkesta, zortzik eztabaida taldea burututakoan eta gainontzekoek, elkartzeko arazoak direla eta, telefonoz erantzun diote inkestari. Ez dut 3 ikasleren iritziak jasotzerik izan, horrela bada, ondorengo lerroetan aurkeztu dizkizuedan emaitzak 10 ikasleri dagozkionak izango dira.

Irakasleak ere inkesta bati erantzun dio. Inkesta honi ere Europako Kontseiluak egindakoaz eta Iralekoek utzitako inkestaz gain, nik sortutako galderak gehitu dizkiot. Ikus 4.dokumentua.

Azkenik, hizkuntza gaitasunean ikasleen emaitzak hobeak ote diren frogatze aldera, antzeko ezaugarriak dituen talde bat aukeratu eta emaitzetan dagoen aldea aztertu dut.

Datu bilketa

Datu bilketari dagokionez, osatuagoa izan zitekeen dudarik gabe. Ikastaroa amaitu ostean burutu dut, hasierako eta tarteko datu bilketa egiteak esperimentazioaren ondorioei emango zien baliotasun eta fidagarritasunaz, ikastaro amaierara arte, erabat ohartu gabe. Portafolioa eta Hizkuntzen Portfolio Europarra, zehatzago, pausoz pauso deskubritu, aztertu eta sakondu dut; lehenengo alde teorikoa eta bigarren praktikoa irakasle eta ikasleekin batera. Horrenbestez, aurrerago ikusiko duzuen bezala, zenbait ondoriok hasierako eta tarteko informazioaren beharra agerian utzi dute. Batez ere, kultur aniztasun eta eleaniztasunari buruzko ondorioetan ez dut alderatzerik izan ikasleek beren ikas-prozesuetan, esaterako ebaluazioa atalarekin ez bezala, alde aurretik gai horren inguruko hausnarketarik burutua izan ez dutelako, alderatzeko erreferentziarik izan ez dutelako, alegia²¹.

Aurrerago beste esperimentazioaren baten datu bilketarako kontuan hartzeko alderdia da hau eta baita emaitzen baliotasuna eta fidagarritasuna hobetze aldera, kontrol talde bat izatearena ere.

²¹ ikas-prozesua lehenagotik hasita izan duten ikasleak dira, horrela, badaukate zerekin alderatu: ebaluazioaz, ikas estrategiaz, motibazioaz ...

HIPOTESIAK

1go hipotesia

HPE tresna baliagarria dela frogatu alderdi komunikatiboari erreparatzen dion hizkuntzen ikaskuntzarako eta ebaluazio formatiborako.

Alderdi komunikatiboari erreparatzen dion hizkuntzen ikaskuntzarako hipotesiari dagokionez, eztabaida taldean aurreko metodologiarekin alderik ikusten duten galderaren erantzunetan desberdintasunik badagoela aitortzen dute. Hemendik aurrera letra etzanez agertzen diren testu zatiak ikasleen erantzunen hitzez hitzeko transkripzioak dira:

“Lehenago metodologiarekin izan dira apunteak, apunteak eta apunteak, ariketak eta ariketak eta dena eginda”.

“Prestatuta/finkatuta daudelako, klasea, berdin da maila, baina hasten ez dakit zenbat ariketa egin behar ditugu, eta egiten ditugu eta listo, berdin da nik badakit edo ez dakit horretaz, egiten da eta amaitzen da eta hurrengo egunean gauza bera tokatzen... bueno, egiteko baldintzak, ba baldintzak, nahiz eta jakin edo ez jakin edo nola dakigu, berdin dio, egiten da ya prestatuta, finkatuta, gaur hau, bihar ez dakit zer, herenegun(etzi) bestea, eta jende guztiak berdina; ez da bereizten hori, adibidez, pertsona batek ahozkoan oso ondo egin duen edo idatzia edo da garapenaren falta arazoa edo (zuzentasuna beste bat) hiztegia edo, hori ez da bereizten dena egiten da oro har denontzat eta metodo honetan bereizten da zein den eta zuk gainera ikusten duzu”.

“(lehenago)metodologiarekin dena esanda dago eta guztiok jarraitu behar dugu”

Orain arte izan duten ikas-prozesuan, hizkuntzaren sistema gramatikala lehenesten dela ondoriozta dezakegu, eta batez ere, gaitasun linguistikoari begiratzen zaiola. Ikasgaiak hartzen du garrantzia eta helburuak alde aurretik finkatzen dira

Badago, mailari HPEri baino garrantzia handiagoa aitortzen dionik:

“esaten ari nintzen, ba hori, ba maila altukoak garenez, suposatzen da gramatika ikusita geneukala, eta ordun ez dakit metodo hau Portfolioaren eragina izan den ala ez.”

“Adibidez ni lehenago ikastaroan oso gustura egon nintzen gramatikaren aldetik asko aurreratu genuen, baina jende asko deseroso zegoen baina talde honetan, gure zikloa, kakotxen artean ziklo altua zen, maila altua zuen, orduan ya behintzat gramatikaren aldetik, guztiok bagenituen eduki asko, ezta? Ez dakit igual 5 mailan ez dut ezagutzen, orduan ezin dut ezer esan horri buruz, baina gure zikloan behintzat oso eroso izan naiz.”

Gehienak, ordea, beste iritzi batekoak dira:

“Lantzen dituzu alderdi ahulak, baita indartsuak ere, bakoitzak zentratzen ditu bere ahaleginak ba, bere alderdi ahuletan; zurea bat izan daiteke, nirea beste bat, eta nik ez dut landuko zuk lantzen duzuna, hala ere, nik uste dut tradizionalan, heltzen zarela, eta maila aurrera doa eta guztientzat mailak aurreratu du eta abiadura berberarekin, eta honetan

bakoitzak berea dauka eta ez dakit zergatik baina nik ez dut nabaritu, zuek esango duzue nabaritu duzuen ba besteok abiadura desberdina zeramatela”

“nik uste dut metodologia honekin, honela zuk ikusten duzu behar duzuna, bestean egiten duzu ariketak eta ..amaitu da, hemen ikusten duzu aurreratzeko lan egin behar duzula eta helburua bete nahi baduzu, ordu horiek sartu behar dituzula, eta orduan , hori da, guk bultzatzen dugula helburua”

Ikas-irakasle artean negoziatzen da ikas-prozesua eta ikas-irakasleek hartzen dituzte erabakiak. Inkestaren galdera ireki batean ondorengo dio ikasle batek:

“Irakaslearekin adosten genuen helburuak eta bakoitzak bagenekien zer egin behar genuen eta zeintzuk ziren gure akatsak.”

Eta beste batek:

“Helburuak markatu genituen, adibidez, elkarrizketan gai izan ideiak eta iritziak emateko edo idazmenean gaia garatzeko eta bakoitzak bere kabuz egiten zuen,taldearen laguntzarekin, noski.Taldea oso garrantzitsua izan da.”

Argi dago, Europako Erreferentzia Markoak finkatzen dituen helburuak, gaitasun modura formulatuta, eragin nabarmena izan duela alderdi komunikatiboari erreparatu ahal izateko. Izan ere, helburu hitza aipatzen dutenean, kontuan hartu behar dugu Gaitasunak direla landu dituztenak.

Bestalde, garrantzia handia izan du arestian aipatu bezala, ikasleek izan duten helburua. Izan ere, bakar batentzat izan ezik, azterketa gainditzea izan da helburu nagusia eta alde horretatik, alderdi komunikatiboa helburu horren pean kokatzen dute. Eztabaida taldean hizkuntzen ikaskuntzaz zuten ideia aldatu al dien galderaren erantzunetan ikus dezakegunez, norabide horretan doaz erantzun gehienak.

“Pixka bat bai, baina...”

“ba mailak, mailari buruz, adibidez, zu adibidez ingelesez edo euskaraz zer zara kapaz hitz egiteko, ez dakit modu xume batean edo jariotasun gehiagoz, neurtzeko adibidez bai”

“neurtzeko modua bai, Portfolioarekin nabaritzen zen aldatzen zela, baina azken finean helburua hasiera batetik izan da azterketa gainditzea edo azterketari begirako plana, orduan ebaluazioa egiteko modua ezberdina izan balitz, agian erantzuna ezberdina izango litzateke, no?”

“Agian, helburua bada erabiltzea, igual ez dugu hainbeste gramatika, ez dugu ikasi behar, dinot”

“Bakoitzak bideratzen du ikaste prozesua, baina ebaluaketak betikoak izanez (azterketak) metodologia berria bestearen menpe geratzen da”


Hala ere, inkestaren galdera ireki batean horrela dio beste ikasle batek:

“Hitz egiten edota idazten ikasteaz gain, komunikatzen ikasten duzu (edo, behintzat, saiatzen zara...) ...”

Eta gehitzen du:

“Hizkuntza ikasteaz gain, nire ikasteko erari buruz hausnartzeko aukera eman dit”

Ebaluazio formatiboa ahalbidetzeko, hots, ikasleen beharrei egokitutako programazioa burutu ahal izateko teknika egokia izan da ez bairik gabe ikasle gehienen ustez. Eta transkripzioan jasotako iritziez gain, inkestaren galdera itxian ere beren ezaugarriak ezagutzen, gabeziak aurkitzen eta eraginkor ikasten, erabateko adostasuna agertu dute gehienek.



“Ebaluazioa egiten da momentuan, ez da egiten hori bukatzen duzunean ikastaroa eta hori inportantea da, bestela gero ya egiten bada bukaeran egiten denean”



“bakoitzak bilatzen ditu, pues, bere akatsak....irakasleak zuzendu behar ditu.....ahalegin handiak egin behar dira”

“(HPE zer den) bueno argi-argi ez dakit, baina berdin da, no?bakoitzak behar duena lantzen du eta kito,”

“lehen ez dut ezagutzen holako gauzak (ebaluazioa, helburuak, ikas-estrategiak) eta zure ahuleziak edo ez dakit detektatzea, non dauden zure akatsak eta hori, zuzentzeko”

“ikastaroak aurreratu ahala baliabide asko ematen dizute, ba zuk ezberdintzeko zure akatsak bestean akatsak eta abar, adibidez, guk ahozkoetan egiten dugu, hasieran igual ba pumba-pumba, jo oso txarto eta gero ya behintzat ba, konturatzen zinen zeintzuk ziren zure akatsak eta adibidez Ainhoarekin, ezta? ikastaroaren amaieran oso urduri eta oso txarto baina ya behintzat identifikatzen nituen nire akatsak, bueno beste batzuk Ainhoak esaten zidan, igual ezta?”

Inkestaren galdera itxian ere horrela adierazi dute; batek izan ezik, gainontzekoek argi dute euskara mailaren aldetik taldean egon diren desberdintasunek ez dutela beren aurrerapena oztopatu.



Prozesuari dagokion ebaluazioa egiteko gaitasuna aitortzen diote HPEri, ikasle bakoitzaren beharrei egokitutako ikas-prozesua burutzeko gaitasuna, alegia.

“Ez da mailaren arabera, berdin da 1.2.3edo 10.ena; nik ikusi dudana e! eta orduan bai, ezberdina da, eta nire ustez inportanteena da pertsona bakoitzari bideratuta, depende ze urrats, gure taldean nibelak , helburu desberdinak, 2.perfila, 3 perfila, bueno helburu desberdinak, nahiz eta horrela izan, ez zegoen desberdintasuna, klasean ez zen ikusten”

“Desberdintasunak ez ziren nabariak eta gehienetan nik uste dut lagungarria izan dela”

Badago, hala ere, metodologia tradizionalen neurri batean horrelakorik egiten dela aipatzen duenik:

“gauzatxo bat ze, metodologia tradizionalen, ba pentsatzen dut portafolio apur bat egiten dugula...zure kabuz deskubritzen duzu zure puntu makalak, orduan tradizionalen ere,zuk lantzen dituzu,igual”

Hurrengoa gehitzen du ikasle batek:

“Baina hori zer da, irakaslearen eta ikaslearen arabera, ezta?agian ez da Portffolio metodoa erabiltzen baina, ados daiteke hori, ezta; nik pentsatzen dut....irakaslearen papera oso inportantea dela, metodoa ba bai”

Gehienek, funtzio pedagogikoa aitortzen diote HPEri. Ikasleen ustez, gabeziei antzeman eta gaintzeko neurriak proposatzen ditu eta ikasleari bere ikas-prozesua ulertu eta hobetzeko urratu beharreko jarraibideak eskaintzen dizkiola onartu.

Inkestaren galdera irekietan haxe da punturik aipatuena:

“Beste ikastaroetan ondo sentitzen nintzen, baina batzuetan aurrerapena laburra izaten zen. HPErekin aurrerapena handiagoa izan da, bakoitzaren alderdi ahuletan zentratzen garelako”

“Hots, guztiok jakin genuen hasiera batetik nora joan nahi genuen eta, irakaslearen laguntzaz, zer egin behar izan genuen, pausoz pauso, helburu zehatzak lortzeko. Horrela, akatsak akats, memento guztietan gure artean, egin genuen lan bakoitzaren xedeak gauzatzeko elkarrekin ahalik eta zintzoen jokatu, bai norberaren ahultasunak onartuz, bai beste baten alde indartsuak adieraziz”

“Nire kasuan, behintzat benetako akatsak eta gabeziak jakinarazteko baliagarria izan da (HPE)”


“eta zuk bereizten dituzu (landu beharrekoak) edo zuk Jartzen dituzu zure indarrak, zeintzuk diren zuretzat erosoagoak”

“Egon naiz beste ikastaroetan eta bakoitzak bageneuzkan urrats desberdinak; igual baldintzak batzuek bazekiten eta beste batzuek ez, baina egin behar genuen; honetan bakoitzak bagenekien zer egin behar genuen eta zeintzuk ziren gure akatsak.”

Alderdi positiboetan, nire maila argiago ikustea

“Alderdi positiboena da askatasun gehiago nahi duguna lantzeko”

Auto-ebaluazioko teknikak ikasteko baliagarria izan den inkestaren galdera itxiari ere adostasunez erantzun diote gehienek eta bik ez dute kontrako iritzirik adierazi.



Hala ere, eztabaida irekian ikasle batek erreferentzia baten beharra azpimarratzen zuen auto-ebaluazioa burutu ahal izateko.

“Bakoitzak ezin du bere burua aztertu ez badu zerekin konparatu, zerbait behar dugu konparatzeko, bestela ezin dugu jakin ba.....nire ikas-prozesuaren jabe izango naiz baina laguntza behar dut edonon, ikasle baten, irakasle batean...adibidez etxean bakarrik...bai irakurriko dut eta telebista eta irratia euskaraz entzungo dut, baina ez dakit zenbatean aurreratatu dudan, ezin izango naiz gai jakiteko asko aurreratatu dudan, asko, gutxi...”

Ikaskideek, aitzitik, ez dute horrela ikusten:

“Baina zuk ez badituzu iritzi horiek onartzen ez duzu ezer lortuko, orduan hori da zure akatsetatik ikasi, zu zara jabea”



“Bai-bai jakingo duzu”

“ez duzu behar irakasle partikular bat, irakurtzen duzunean ez baduzu erabiltzen hiztegi bat edo ez badituzu behar zuzentzaile bat, orduan zuk jakingo duzu aurreratzen duzula, hori da; irakurtzen duzu iritzi artikulua bat eta ez baduzu behar hiztegi bat orduan, primeran aurreratatu duzu eta ikasterakoan nola da? Orduan esan nahi duzu aurreratatu duzula. Nola lortzen da hori eginez eta erabiliz, praktikatu”



“akatsak ikustea nire ustez, metodo honen bidez argiago ikusten dira akatsak denak han egon badaude eta zuk metodo honetan edo behintzat argiago, edo ageriagoak geratzen dira eta

hori da, ikusten dituzu momentuan pues behintzat nahi baduzu aukera daukazu gehiago ikasteko edo aurreratzeko edo zerbait gehiago egin nahi baduzu, baina hori ikusi ondoren eta metodo honekin hobeto ikusten dira, zure joera eta non zauden edo hori”



Irakaslea ikasleek egindako auto-ebaluazioarekin bat etorri den inkestaren galdera itxiaren erantzunean oraindik zer hobetua dagoela antzeman daiteke, nahiz eta gehienak aldeko iritzia azaldu. Ikus dezagun grafikoki:



Hala ere, ondorengo diagraman ikusiko dugunez, HPEk hizkuntzetan zer egiten dakiten zehazteko lagungarria izan da eta esan daiteke, beraz, neurri baten auto-ebaluazioa egiten ikasi dutela:



Era berean, egindako aurrerakuntza eta hizkuntzen menderatze-maila ikasleak berak auto-ebaluatzea erabilgarria iruditu zaie. Auto-ebaluaziorako erabilgarritasuna aitortzen diote HPERi eta aurreko ideia indartu eta berretsi egiten du.



Aipatzekoa da, hala ere, ikasle batek ez duela horrela ikusten, nahiz eta inkestan kontrako iritzirik ez azaldu. Komeni da azaltzea otsailean integratu zen ikasleetako bat izan zela eta aurrerago irakaslearen balorazioan ikusiko dugun bezala, esperimentazioan integratzeko erresistentzia handiak izan zituen ikaslea izan zen.

“Uste dut erabiltzen dutela leku batzuetan izena eman gabe, ez dut uste hain gauza berezia denik. Ez dut nabaritu desberdintasun handirik. Beste lekuetan egiten dutena guk egin dugu: idazlanak, atarikoak eta ahozkoak, oraindik ez dakit oso argi HPE zer den. Garrantzitsuen metodo guztietan motibazioa eta irakaslea dela uste dut.”

2. hipotesia

Ikasleak aipatzen duen azken ideia horri jarraituz, **ikas-prozesua bideratzeko eta ikasle-irakasle rolak aldatzeko: irakaslea ikasleari lagungarri zaion tresna** hipotesiari dagokionez guztiek uste dute irakaslearen papera erabakigarria izan dela:

“Nik uste dut irakaslearen papera oso garrantzitsua dela, batez ere betiko metodologian irakaslearen papera garrantzitsua da, baina honetan askoz gehiago. Hasieran bideratu behar digu irakasleak berak jakiteko(....?)²²zein izango den benetako helburua. Uste dut gure lehenengo esperientzia denez, ba, horrek garrantzia handiagoa dekola. Agian txikitatik horrela egingo bagenu, ba, gure kabuz egiteko gai izango ginatke(....?)Nik uste dut oso ondo bideratuak izan garela eta bakoitzak aurreratu duela ahal duena”

“Bai, baina hasieratik, Ainhoak (irakaslea) bultzatu du hori (giro ona) eta nik uste dut oso ondo egin duela eta lortu duela. Hasieratik giro ona egon da beti eta irakasleak ez badu ondo bideratzen eta bilatzen ditu zutabeak edo nondik bultzatu taldea ez du funtzionatuko ez du aurrera egingo, ez Portfolioa ez betiko irakaskuntza.”

Irakasleak duen garrantziaren gainean galdetuta, honakoa diote:

“Hasieran bai, gero bideratuta dagoenean kurtsoaren erdian edo, ez da hain garrantzitsua”

“Gero bakoitzak hartzen du bere ardua”

“Bere inertzia”

“Bai bere zuzendaria”

“Bai bakoitzak hartzen du bere inertzia hartu baina zuzendaria...”

“Badago, baina ezkutuan; Hasieran berak bideratzen du eta ya gero bakoitzak bideratzen duenean bera 2.mailan dago edo atzean dago”

“Kontua da ez dela nabaritzen”

“Hori da, ez da jainkoa klasean “

²² (...?) transkripzioan ulertu ez ditudan pasarteak

“Hasieran bezala, klaro”

Ikus dezakegunez, irakasle-ikasle rola aldatzen direla aipatzen dute eta ikas-prozesua bideratzeko baliagarria dela. Horrela dio inkestaren galdera ireki baten ikasle batek:

“Irakaslea bigarren plano batean geratu ondoren, ikasleok elkarri laguntza emateko gai jabetzen gara. Horrek ikas-prozesuan murgiltzen gaitu eta aurrerapen handiagoak erdiesteko aukera ematen digu.”

“libreagoa dela uste dut, ikasleak aukeratzen du hori egokitzen zaizkion erak ba ikasteko”

“metodologia honekin, pues norberak eskatzen duena egiten da”

Baina bere beharra ere azpimarratzen du:

“...nabaria izan da taldearen dinamika mantendu behar zenean, irakaslearen aldaketa²³. Gure kasuan irakasle bakarra izan da Portfolioarekin bat etortzen dena edota metodologia barneratuta zeukana. Hortaz, irakasle horrek ez egotean, taldeak berez egiten zuen aurrera egun batzuk. Baina, zalantzak agertzean edota ekintza berriren bate egiterakoan, ezinbestekoa da irakaslearen bideratze lana.”

“Irakasleak garrantzia handia du, bere lana ezinbestekoa izan da”

Inkestan beste ikasle batek gehitzen du:

“Uste dut oso gustura izan naizela irakaslea oso ona izateagatik, baina metodologia nire kasuan ez da izan oso baliagarria. Asko produzitzen da eta gutxi jaso.”

3. hipotesia

Aldez aurretik finkatutako hurrengo hipotesiaren inguruan ere, **ikasleen autonomia garatu eta ikas-prozesuaren ardura beren gain hartzea**, esan daiteke, HPEk eragina izan duela. Eztabaida taldean honakoak esan zituzten:

“Hori, hasieran esan dudana, metodo logikoa da, jarraitzeko, ulertzeko eta bueno zure kabuz nahi baduzu zer edo zer egin, egiteko.”

“momentu honetan uste dut gai naiz nire kabuz jarraitzeko”

“eta zu zure kabuz, ikastaroa bukatuta zure kabuz ikasteko, autonomoagoa zarela ikasteko”

Inkestaren galdera irekietako erantzunetan zera irakur daiteke:

“Nire kabuz egiteko autonomoagoa naiz orain”

²³ Arestian esan bezala, irakaslea bajan egon zen 5 astez

“Nire ustez HPEk inplikazio gehiago eman dit, askoz gehiago inplikatu naiz nire ikas-prozesuan. Metodo honek behartzen zaitu inplikazioa izatera.”

Alderdi positiboetan,

“Nire esku ardura ipintzea”

“Malgutasuna, askatasuna”

“Bakoitzak bideratzen du ikaste prozesua, baina ebaluaketak, betikoak izanez, metodologia berria bestearen menpe geratzen da”

Ikasle gisa eraginik izan duen galdetzean:



“Zure irakaskuntza prozesua ardura izatea aberasgarria da”

“Gutziz eragina izan du. Ondo dakidalako memento honetan zeintzuk diren nire oinarrizko akatsak, honela ezabatzeko oso garrantzitsua da”



“Bai, nire prozesuan barneratzeko eta ardura hartzeko”

“Erakutsi dizkit zeintzuk izan daitezkeen hizkuntza bat ikasteko eskura dauzkadan baliabideak, baita nola erabili modu eraginkor batean ere.”

Esan daiteke, ikas-prozesua modu autonomoago batean bideratzeko balioa ikusten diotela HPEri. Ikas-prozesuan guztiek (batek izan ezik, eta ez du kontrakorik adierazi) ikas-prozesuan gehiago inplikatu direla adierazi dute:



Eta HPEk proposatzen duen moduan hizkuntzen ikaskuntzako erantzule nagusia izatea gustatzen zaiela:



HPEk ahalbidetzen duen koebaluazioa eta adimen anizkoitzen inguruan egindako lana aipatzen dituzte autonomia eta ikas-prozesuaren ardura norberak bere gain hartu izanaren arrazoi nagusitzat:



“guztiok akatsak elkarrekin zuzentzea, eta bakoitzaren gabeziak agerian uztea eta alde indartsuenak ikusiz nik uste dut lagungarria izan dela eta orduan Niri adibidez, lagungarria izan zait bestean idazlanak ikustea; oso ona izan da jakiteko nola hobetu.”

“Nik uste dut e, batak besteari laguntzea, lagundu ahal izatea, ba asko lagundu diogu; ba elkartasun zentzua sortzen da taldean, eta orduan badakizu beste batek gauza batean oso ona dela eta hari galdetzen diozu nola egin behar duzun orduan denak laguntzen dizu eta horrek elkartasuna indartzen du eta lotzen du, uste dut lotu gaituela”

“Uste dut oso aberasgarria izan zela, niretzat behintzat hasierako aniztasuneko (adimen anizkoitzak)...hasi ginen terapia de grupo egiten, aniztasuneko horrekin, eta horrekin pertsonak kokatzen, sailkatzen eta bide batez, bakoitzak bere ahuleziak, edo alde indartsuak pertsona moduan erakusten ba horrek aitzakia zen gero ikas prozesura eramateko eta hortik aurreratzeko...”

“Talde osoa elkarrekin ibili gara; bakoitza bere beharrekin elkarri laguntzen eta elkarrekin joan izan ez bagina, ba desberdin izango litzateke.”

Bat etorri dira **koebaluazioa** egiteak klasean oso giro ona sortu duela esatean. Halaber, **motibazioa** izan da alderdi guztietan gehien aipatu duten faktorea. HPEk ere motibazioa mantentzen lagundu die eta horrela adierazi dute bai eztabaida taldean, bai eta inkestaren galdera ireki eta itxian ere:



“nik uste dut taldean egon den giroa ezinbestekoa izan dela guztion motibatuta egoteko”

“ikastaroan ikusitakoak ikusita, niretzat positiboena izan da taldearekin sortu den ikasteko giroa”

“dena dago sartuta; taldea, irakaslea, motibazioa, eske, dena hasieratik hartzen duzu bide bat eta dena dago sartuta”

“Azken finean guk filtro daukagu, batez ere, batez ere motibatuta bagaude, ezta? orduan motibazioa handia bada edo oso indartsua bada, , orduan dena “doa sobre ruedas ezta?” orduan nahiz eta modelo hau ezagutu eta gustatu zait, baina nik uste dut motibazio kasutan ba edozein kasutan, ba gozatuko nuke. Ni oso motibatuta egon naiz”

“Nire ustez, argi utz behar da metodologia honez aurrera joan ahal izateko motibazioa ezinbestekoa dela. Hala izango ez balitz, nola eskatu ikasle bati bere ikas-prozesuaren eragile nagusia izateko. “



“HPEk jarreran laguntzen dizu, aldeko motibazio eta jarrera mantentzen hizkuntza guztietarako.”

Badago motibazioa klabea izan delako ustea duen ikaslerik:

motibazioaren gauza da eta ez da nire ustez Portfolioarena

Nahiz eta gero aitortu HPEk motibatu egin dituela; eztabaida taldean, aho batez esan dute baietz; HPE motibagarria dela.

HPEren jarduerak egiten gustura ibili ote diren galderari ere gehienek adostasunez erantzun diote:



4. hipotesia

Hizkuntzen ikaskuntza euskaltegitik harago doan ikas-prozesua dela azalarazteko, oro har baliagarria izan dela ondoriozta daiteke; nahiz eta hasieran esan bezala, gehienen helburua hori ez izan. Horrela bada:

“Hombre, kasu honetan argi eta garbi, helburua azterketa bat prestatzea eta gainditzea da eta kito, baina gero metodologia nahi duzun momentutan beste gauzetan ere erabili dezakezu”

“momentu honetan uste dut gai naiz nire kabuz jarraitzeko”

“metodo logikoa da, jarraitzeko, ulertzeko eta bueno, zure kabuz nahi baduzu zer edo zer egin, egiteko. “

“Hombre beste esperientzia bat da, eta beti aberatsa da, ya konkretuki gure bizitzan, pues bueno, beste gauza egiteko, bai denetarik egiteko da, ez da hizkuntza bat ikasteko bakarrik. Oso logikoa da, eta orduan... baina, hizkuntza bat ikasten dugunean ez dugu aukerarik egiteko modu batean edo bestean, ya eginda dago eta han dago jarrita, gero zure bizitzan nola erabiltzen duzun edo nola egiten duzun gauza ba ya zure kontuan datza, eta orduan nik uste dut nire bizitzan oso praktika naizelako halako zerbait egiten dut. Orduan, horregatik esaten dut behin eta berriro, metodo logikoa da, zuk daukazu helburu bat, lortu nahi duzu eta zuk jakin behar duzu non zauden eta nondik eta norantz joan.”

Inkestan ere horrela dio ikasle batek:

“ikastaroa amaitu zen eta orain nire kabuz egiteko autonomoagoa naiz. Mintzapraktika egingo dut nire kontura, hori da behar dudana.”



“eta zu zure kabuz, ikastaroa bukatuta zure kabuz ikasteko, autonomoagoa zarela ikasteko”

Norbere ikas-prozesuarekiko kontzientzia handiagoa da eta ondorioz, ikasgelatik kanpo euskaraz aritzeak daukan garrantziaz ohartu egiten dira. Beste kontu bat da egin nahi izatea. Honela dio batek:


“Niretzat beharrezkoa da jarraitzea, bestela prozesua bertan behera geratzen da, ni ya... amaitu ginen 23tik hona, dena erderaz, zuretzat posible da, niretzat ezinezkoa da baina segun eta zure giroa, zure errealitatea, orduan”

“oso astuna da zure kabuz egitea”

Inkestan ikastetxetik kanpo hizkuntzak ikasten lagundu ote dien galderari adostasunez erantzun diote gehienek. Hala ere bi kontra azaldu dira eta kontuan hartuta galdera iritzi gehienetan kontrako iritzirik apenas egon dela esanguratsua izan daiteke:



Hasieran esan bezala, kultur aniztasuna eta eleaniztasuna bultzatzen ote duen hipotesiari buruz, ez dute horren kontzientziarik izan, eta hortaz, ez dute apartekorik adierazi, nahiz eta inkestan guztientzat aberasgarria iruditzen zaien hizkuntzak jakitea.



HPEren lanketa, batez ere, ikasleen beharretara egokitutakoa izan da; ikas-prozesuaren kontzientzia garatzeko eta autonomia bultzatzeko. Horrek baliabideak ematen dizkio ikasleari modu autonomoan euskaltegitik kanpo bere ikas-prozesua jarraitzeko; baina kultur aniztasuna eta eleaniztasunaren kontzientzia bultzatzeko lanketa berezia egin beharko litzateke eta ez da egin.

Aipamen gutxi egon dira honen inguruan:



“Hizkuntzak ikasteko HPE oso era aberasgarria delako.....eta herri baten kultura parte izateko eta sentitzeko aukera ematen dizulako.”

“HPEk jarreran laguntzen dizu, aldeko motibazio eta jarrera mantentzen hizkuntza guztietarako.”



“Positiboena, hizkuntzarekiko egoera pertsonala kokatzea eta bide batez hobetzen saiatzea”

Baina landu gabe ere, zenbait ikaslerengan eraginik izan du.

Inkestan zein hizkuntzarekin eta zein kulturarekin duten harremana konturatzen lagundu ote dien galderaren erantzuna bat dator esandakoarekin; gehienentzat ez baita horrela izan. Bi ados azaldu dira, bi kontra eta gainontzekoek ez dute ez bata ez bestea adierazi. Ikus dezagun:




Horrez gain, eleaniztasunaz inkestaren galdera itxian egin zaien galderaren erantzunetan argi ikus daiteke ez diotela berebiziko garrantzirik ematen.




5. hipotesia

Azken hipotesiari dagokionez, *hizkuntza-gaitasunean ikasleen emaitzak hobeak direla*, bi alderdi aipatu beharra daude.

Alde batetik, emaitzak onak izan dira, 13 ikasletik 7k, hau da, %53,84k (7 horietatik 2k 2.HE eta 3HE gaintu dute) lortu dute hizkuntza gaitasuna egiaztatzea, beren beregi Administrazioak jarritako hizkuntza eskakizunen azterketetan edota HABEren maila azterketetan. Eta ezaugarri bereko talde batekin alderatuz gero, hau da, administrazioiko ikasleez osatutako taldea, 5 orduko modulazioan eta urrats berean hasita, argi esan daiteke emaitzak hobeak izan direla; 11 ikasletik 4k, %36,36k egiaztatu dute hizkuntza gaitasuna. Ikus dezagun grafikoki:



Hori horrela izanik ere, beste alde batetik aztertuta, emaitzak ez dira hain onak izan. Izan ere, nahiz eta HPE lantzen eman duten denbora, ikasle guztientzat, batentzat izan ezik, oso probetxugarria izan, HPEren zailtasun eta alderdirik negatiboena egin behar izan duten **lan handia** izan da. Hizkuntz eskakizunetan lortutako emaitzei begiratuta, ondorioztatu beharko genuke oro har, egindako ahalegina bat etorri dela lortutako emaitzarekin, baina ez da horrela izan. Inkestaren galdera itxiaren erantzuna oso adierazgarria da.



Gehienek, ez dute adostasunik ez kontrako iritzirik adierazi puntu honetan; emaitza onak izan direla uste baitute. Hortik uler daiteke desorekatua izan dela egin duten lana, gehiegizko lana egin dutela, alegia. Eta horrela adierazi dute, bai eztabaida irekian, bai eta inkestaren galdera irekietan ere:

“Nire ustez zailtasun handiena da, hori, lan gehiago egiteko prest egon behar dela Portfolioa jarraitzeko, nik, behintzat, beste ikastaroetan baino askoz, askoz ordu gehiago eman dut; orduan, agian hori da, ordu gehiago behar da, gehiago, gehiegi ez dakit, azkenenean agian merezi du, eh! emaitzak ikusita merezi du, baina hori, lan handiagoa dago. Bakoitzak etxean ordu batzuk eman behar dugu. Hori da zailtasun bat”

“Nire ustez izan da denbora falta, klasean egiten duzu gauza asko, baina denbora behar da barneratzeko”



“Metodo hau praktikan ipintzeko denbora laburra izatea”

“Indar handiegia egin dugu/dut aurrerapena hori lortzeko”

“Lan gehiago egin behar da”

“Lan handia, izugarria eskatzen du.”



Lan gehiegi egin dutela ondoriozta daiteke, baina, aldi berean, gehienek onartzen dute HPE lantzen eman duten denbora probetxugarria izan dela, oso:





Beharbada, horren irakurketa izan liteke Portfolioak aktiboago bihurtzen duela ikaslea, metodologia horrexetan oinarritzen da-eta, eta jakina, aktibo bihurtzeko, ikaslearen ahalegin handiagoa eskatzen da, baina era berean, ahalegin hori emaitzetan islatzen da dudarik gabe. Horrela dio ikasle batek eztabaida taldean:



“Aurrerapena izugarria izan da kasu guztietan”

Bukatzeko, batentzat izan ezik, HPE ezagutzea interesgarria iruditu bazaie ere, HPE zer den jakinaraztea ez zaie erraza iruditu. Ikus dezagun grafikoki:





Ikasle guztiak HPE izatera animatu behar ote diren galderari, gehienek halaxe uste badute ere, ez diote erabateko adostasunez erantzun.



Irakaslea

Hizkuntzen Portfolio Europarra ezagutzea interesgarria iruditu zaio eta HPEren jarduerak egiten gustura aritu da. Motibazioa mantentzen ere lagundu dio eta HPE lantzen eman duten denbora probetxugarria izan dela uste du.

Horrez gain, HPEk lagundu dio bere ikasleen trebetasun batzuen gaitasun maila ebaluatzen eta ikasleen ikasketa helburuak zehazten. Ikasleen beharrei egokitutako ikaskuntza-prozesua burutzen lagundu dio; hau da, beren ezaugarriak ezagutzen, gabeziak aurkitzen eta eraginkor irakasten. Ikasleek egindako aurrerakuntza eta hizkuntzen menderatze-maila ebaluatzeko erabilgarria iruditzen zaio. Ikasleak ere HPEren bidez auto-ebaluatzeko gai izan direla uste du.

Era berean, argi dauka ikasleak ikaskuntza prozesuan inplikatu egiten direla eta parte hartze aktiboagoa dutela.

Euskara-mailaren aldetik taldean egon diren desberdintasunek ez dute, inondik inora ikasleen aurrerapena oztopatu.

Hizkuntzen Portfolio Europarrari esker Espainiako eta Europako hizkuntza-aniztasunarekiko eta kultur aniztasunarekiko sentsibilitate handiagoa dutela uste du irakasleak.

HPE zer den jakinaraztea zaila suertatu ez bazaio ere, ezin esan erraza izan zaionik. Izan ere, eta galdera irekian azaltzen duenez, *“HPE zer den ikasleekin batera deskubritzen joan naiz eta pausoz pauso sakondu dut Portfolioan, horrela bada, tarteka zalantzak izan ditut, ziurtasun eza izan dut eta horrek lasaitasun osoz aritu ahal izatea oztopatu dit”*.

Dudarik ez du, irakasle guztiak animatu behar direla euren HPE izan dezaten.

Esperimentazioa

Esperimentazioaren hipotesiei dagokienez, honakoa da irakaslearen balorazioa:

Alderdi komunikatiboari erreparatzen dion hizkuntzen ikaskuntzarako eta ebaluazio formatiborako, argi dauka erabat lagungarria izan dela. Horrela dio inkestaren galdera ireki batean:

“Ikasleek HPEren laguntzaz gehiago erreparatzen diote gaitasun komunikatiboari eta beren hizkuntza-gaitasuna ebaluatzeke erabili ohi duten modua erabat aldatu dute. Orain zertan diren gai eta zertan ez diren esaten dute, hizkuntz formak bigarren mailan utzita.”

Ebaluazio formatiboari dagokionez, ikasleen beharrei egokitutako ikaskuntza-prozesua burutzen lagundu dio; hau da, beren ezaugarriak ezagutzen, gabeziak aurkitzen eta eraginkor irakasten. Ikasleek egindako aurrerakuntza eta hizkuntzen menderatze-maila ebaluatzeke erabilgarria iruditu zaio. Inkestan ere erabateko adostasuna azaldu du. Ikasleen trebetasun batzuen gaitasun maila ebaluatzen eta ikasleen ikasketa helburuak zehazteko lagungarria izan zaio. Ikasleak ere HPEren bidez auto-ebaluatzeke gai izan direla uste du.

“Helburuek bat egiten zutenean taldeka lan egin izan dugu, baina gehienetan banaka. Tutoretzak izan dira oinarri nagusia ikasle bakoitzari egokitutako ikaskuntza prozesua bideratzeko. Uste dut tutoretzarik ezean ezin dela HPE aurrera eraman edo nik ez dakit nola egin.”

Normalean lehenengo orduan zalantzak argitzen genituen, landu beharreko helburuak adosten genituen taldekakoak eta banakakoak (tutoretzen bidez) eta gero bakoitzak bere helburuetara bideratutako lana egiten zuen. Jarraipena tutoretzen bidez egin dugu.

Hala ere, nahiz eta helburu desberdinak izan elkartzeko ziren idazlanak zuzentzeko, aholkuak emateko.”

Euskara-mailaren aldetik taldean egon diren desberdintasunek ere ez dute, inondik inora ikasleen aurrerapena oztopatu.

Ikas-prozesua bideratzeko eta ikasle-irakasle rolak aldatzeko erabateko baliotasuna duela uste du.

“Ikaslea da bere Portfolioaren jabe eta hasieran helburuak finkatzeko nire laguntza ezinbestekoa izan bada ere, ikastaroak aurrera egin ahala eta Portfolioaren lan egiteko modua barneratu ahala, ikasle bakoitzak bideratu du bere prozesua. Ni beti egon naiz ikaslearekin batera, dudarik ez dago, baina beste maila batean kokatu naiz. Ikasleek hasieran klase magistralak nahi zituzten: arbelean azalpen gramatikalak eman eta ariketa analitikoak gero. Kaosa iruditzen zitzaien klasean bakarrik egotea, ni tutoretzan nengoelako. Irakaslearen beharra azpimarratzen zuten fisikoki ez zegoelako. Nik dena ematea nahi zuten. Pixkanaka moldatu dira, baina badago ikasle bat, otsailean integratu zen bat, klase partikulartzat hartu duena HPE, ez du guztiz onartu. Egia esan otsailean erritmoa moztu zen, hiru berri bideratu behar izan nituelako eta prozesu hori lar arin egin nuen, beharbada finkatzeko denbora gehiegirik gabe. Gainera, bajaran egon naiz hilabetez, eta ez zuten HPErekin jarraitu beste irakaslearekin eta ia 2 hilabetez ez dute behar bezala egin.

Ikasle hori izan ezik, gainontzekoek barneratu dute eta oso gustura ibili gara denak, HPErekin gustura ibili ez dena ere.”

Ikasleen autonomia garatu eta ikas-prozesuaren ardura beren gain hartzeko teknika oso ona iruditu zaio. Honela dio ikasturtean zehar oro har eta jarreran aldaketarik igarri al duen galdetzean:

“Bai, erabat, zelan hartu duten eta zelan bukatu duten. Aldeko jarrera dute guztiz, esan bezala, batek izan ezik eta autonomoagoak dira. Hasieran kostatu zitzaien “txip”a aldatzea eta euren kabuz lan egitea: gramatika liburua, hiztegia, ordenagailua, oso lagungarria izan da ordenagailua. Internet ere bagenuen klasean eta asko erabili dute.

Ikas-prozesuaren jabe dira, gai dira bakarrik ikasi eta lan egiteko eta euskara ikasten jarraitzeko. Badakite zeintzuk diren behar dituzten baliabideak eta gizarteak ematen dituenekin badakite atarramendua ateratzen. Hori bai, oso nekatuta amaitu dute. Lan gehiago suposatzen du, hausnarketa eta produkzioa biak.

Arlo pertsonalean ikasle dependienteak izatetik independenteak izatera bihurtu dira. Ez dira oso kontziente baina beste ikasleekin konparatuta argi dago. Talde dependienteetan ikasleek irakaslerik gabe ez dakite zer egin, eta hauek bakarrik egon dira ia kurtso osoan.

Hori bai, adimen anizkoitzen gainean egindako lana erabakigarria izan da; zelan egokitu ikas-prozesua adimen anizkoitzetara. Nahi baduzu ikasle bat autonomoa izatea jakin behar du zein den berarentzako errazena erosoena eta eraginkorrena. Oinarria izan da autonomia bultzatzeko.”

Hizkuntzen ikaskuntza euskaltegitik harago doan ikas-prozesua dela azalarazteko; kultur aniztasuna eta eleaniztasuna bultzatzen duena.

“HPE erabilgarria izan da bai, ezagutza aldetik, bai, erabilera aldetik eta baita euskararekiko kontzientzia areagotzeko ere. Orain baliabide nahikoa daukate euskaltegitik kanpo ikasteko eta oso kontziente dira euskara ikasteko horixe dela bidea; beste gauza bat da egin nahi izatea.

Ikasle asko euskaltegitik kanpo bilatu dituzte eta bilatzen dute euskalduntzen jarraitzeko bidea. Helburua argi eta garbi azterketa gainditzea izan da, baina batzuen kasuan, euskaltegitik harago joan dira eta neurriak hartu dituzte: mintza taldeetan izena eman, esaterako.”

Hizkuntza-gaitasunean ikasleen emaitzetan: hobeak dira.

“Oso onak izan dira ikasleen emaitzak. Izugarri aurreratu dute alderdi guztietan eta azterketen emaitzei erreparatuta ere, 13 ikasletik 10ek lortu dute beren hizkuntza eskakizuna egiaztatzea. Bi ikasleren kasuan, bi maila gainditu dute, 2. eta 3. Hizkuntza eskakizunak, hurrenez hurren. Alde horretatik, oso pozik nago, lan handia egin baitugu denok.”

Baina aldi berean, emaitzei dagokienez, lortu duen emaitza ez da egindako ahaleginaren bestekoa izan. Galdera irekietan aipatzen duenez, *“lan itzela”* edota alderdi negatiboetan aipatzen duen *“nekea”*, egindako ahalegina oso handia izan dela agerian uzten dute. Ikasleen kasuan bezala, ahalegina gehiegizkoa denean, desoreka adierazten du eta horrenbestez, ezin esan daiteke, emaitzekin bat etorri dela egindako ahalegina.

Erabakigarria izan da irakaslearen lan kargarako materiala Europako Erreferentzia Markora egokituta egon ez izana; izan ere, *“euskaltegian dagoen materiala ez dago horretara egokituta, beraz, gorriak pasatu ditut arlo honetan. Lehenengo ikastaroan (urri-otsaila) askoz hobeto ibili naiz (karpetak izan ez arren). Bigarreanean (otsail-ekaina) oso nekatuta egon naiz (baja, ikasle berriak...).* Nik uste dut ikasleek asko nabaritu dutela neke hori.”

Alderdi negatibotzat hartu ditu *materiala* eta *nekea* eta esperientzia errepikatuko ote lukeen galderari zera erantzuten dio: *Baina, materiala egokituta egon behar da, bestela lan itzela da. Gainera ikasleek txarto baloratu dute materiala, beraz, horrek asko esan nahi du.*

Ondorio gisa zera gehitzen du: *“nigan irakasle gisa izan duen eragina itzela izan da. Uste dut hemendik aurrera ezin izango ditudala eskolak beste modu batean eman. Gaitasunak, helburuak, klasetik kanpo hizkuntza erabiltzearen garrantzia, ikasle bakoitzak berea landu beharrekoa, ikaslea ikas-prozesuaren jabe izatea...”*

“Euskararen i(ra)kaskuntzan aspaldi gabezi itzelak sumatzen dira (emaitzak baino ez ditugu ikusi behar) eta nik uste dut ezer gutxi egin dela edo gogo gutxi dagoela gauzak aldatzeko (nire ingurukoa lekuko). Nik ez dakit beldurra den ala oso eroso gauden..., baina, honetan sakondu behar da nire ustez. HABEtik serio hartu behar da eta sakondu, eta bultzatu; zerbait egin behar da”

Ondorioak

Portafolioaren teknikak i(r)akas-prozesurako izan zitzakeen onurak bultzatu ninduen gehiago jakitera eta horrek HPE deskubritzera eraman, bai eta praktikan zer nolako emaitzak izan zitezkeen ezagutu nahi izatera.

Helburu horrekin bada, esan dezaket alde aurretik finkatutako hipotesiak neurri handi baten bete egin direla.

Inkestetan eta eztabaida taldean azaldutako iritzietan ikasleek antzeko iritzia azaldu dute, baina ezin utz dezakegu alde batera ikasle batek egin duen balorazioa. Gainontzeko ikaskideek ez bezala, galdera itxi gehienetan ez du adostasunik ez eta desadostasunik agertu ere. Galdera irekietan argi utzi du balorazio ona egiten badu ere, *“ez da izan besteak baino hobea, antzekoa baizik”*, eta garrantzitsuena bere ustetan, *“metodo guztietan motibazioa eta irakaslea izan da”*. Komeni da azaltzea irakaslearen hitzetan *“erresistentzia handia izan duen ikaslea izan da, otsailean integratu zen eta hasieratik kontrako jarrera erakutsi du. Apurka-apurka onartzen joan da, baina klase partikulartzat hartu du HPErekin egin dugun lana”*.

Ez da nire asmoa izan HPEren atalak beren beregi neurtzea; aitzitik, gehienbat HPE Ebaluaziorako Portafolio gisa²⁴, ikas-prozesurako izan ditzakeen onurak neurtzea izan da eta lanketak hizkuntzen ikaskuntza euskaltegitik harago doan ikas-prozesua azalerazten duela frogatzea. Horrela bada, ez dut atalez ataleko azterketarik burutu.

Ondorio gisa, beraz, esan dezaket HPE ebaluaziorako tresna gisa, baliagarria dela alderdi komunikatiboari erreparatzen dion hizkuntzen ikaskuntzarako eta ebaluazio formatiborako. Esperimentazio honek erakutsi du HPEk, planifikazioak-garapenak-(auto)ebaluazioak, etengabe elkarri elikatuz, burutzeko prozesua ahalbidetu duela. Erakutsi digu, halaber, ikasleen beharretara egokitzeko baliabideak ematen dizkigula eta eraginkor bideratzen laguntzen digula.

Ikas-prozesua bideratzeko eta ikasle-irakasle rola aldatzeko metodologia eskaintzen digu eta irakaslea ikasleari lagungarri zaion tresna bihurtzen da.

